

## 1 eredua

Toki entitateendako dirulaguntzak, Nafarroako Foru Komunitatean herritarren parte-hartzea sustatzeko eta bultzatzeko

### ESKABIDEA

#### 1.- PROIEKTUA AURKEZTEN DUEN ENTITATEA

Erakundearen izena	<input type="text"/>	
Posta helbidea	<input type="text"/>	
Telefonoa	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Helbide elektronikoa jakinarazpenak jasotzeko	<input type="text"/>	
Harremanetarako pertsona	<input type="text"/>	
Biztanle kopurua Proiektua zer udalerritan egingen den, udalerririk horietakoa (edo horietakoa, proiektu mankomunatuetan)	<input type="text"/>	
Mankomunatua	BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>	Erantzuna baiezkoa bada, adierazi zein erakunderekin aurkezten duzun proiektua: <input type="text"/>

#### 2.- BAIMENAK ETA ADIERAZPENAK

Izen abizenak:

Eskaera egiten duen entitate honen ordezkaria naiz:

IFK:

**2.1** Dokumentu honen bidez, jakinarazten zaizu Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak behar diren ziurtagiriak eskatuko dituela entitateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduak dituela egiaztatzeko, non eta ez duzun berariaz adierazten horren aurka zaudela; hori guztia, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoarekin.

Horrenbestez (marka ezazu aukera egokia):

Ez nago horren aurka, hots, Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak egiaztatzen ahal du ea entitateak ordainduak dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Horren aurka nago, hots, ez dut baimenik ematen Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak egiazta dezan ea entitateak ordainduak dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Horren aurka bazaude, zure entitateak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituela frogatzen duten egiaztagiria aurkeztu beharko dizkio Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuari (39/2015 Legearen 28.1 artikulua)

**2. 2** Honako hau adierazten du:

- Ez duela inolako debekurik dirulaguntzen onuradun izateko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluari jarraikiz.
- Ez duela dirulaguntzak jasotzeko administrazio-zehapenik edo zehapen penalik.
- Marka ezazu aukera egokia:

Ez du inongo administrazio publikoren edo erakunde pribaturen dirulaguntzarik jaso edo eskatu helburu bererako.

Administrazio publikoren edo erakunde pribaturen baten dirulaguntza jaso du eta/edo eskatu du helburu bererako. Hala bada, adieraz ezazu:

• Erakundea:

• Kopurua:

**LEKUA, DATA, ALKATETZAREN/LEHENDAKARITZAREN SINADURA ETA ERAKUNDEAREN ZIGILUA**

Datuak babesteko araudiarekin bat etorritz, Nafarroako Gobernu Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak tratatuko ditu elkartearen ordezkariarekin harremanetan jartzeko datuak, tratamenduaren arduraduna baita, tramite honetan: Dirulaguntza deialdiaren helburuarekin.

Tratamendua legitimatzen duten oinarri legalak dira Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (19.3 artikulua) eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa.

Datuak aipatu helburua betetzeko behar den denboran edukiko dira, eta Departamentuak haien tratamenduaren ondoriozko erantzukizuna izan dezakeen bitartean gordeko dira.

Datuak Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuei laga dakizkieke. Datuak lagatzea aurreikusita ez dagoen kasuetan, baimena eskatuko da.

Datuak zuzendu, ezabatu eta eramateko eta datuak tratatzeari mugak jartzeko edo aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu; horretarako [participacionciudadana@navarra.es](mailto:participacionciudadana@navarra.es) helbidera idatzi behar duzu, eta mezuaren gaiari "datuen babesa" adierazi. Erantzunak asetzen ez bazaitu, Nafarroako Gobernuko Datuak Babesteko Ordezkaritzara ([dpd@navarra.es](mailto:dpd@navarra.es)) jo dezakezu, edo Datuak Babesteko Espainiako Bulegora (<https://www.aepd.es/>).